

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5490

AGINDUA, 2020ko azaroaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritz, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2020ko azaroaren 24an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2020ko abenduaren 22a, asteartea

Laugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 30a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2020ko abenduaren 22a, asteartea

ERANSKINAGOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOENZERRENDA

Abizenak, Izena	Espediente zk.	Modalitatea	Kategoria
Abrisqueta Iturregui, Vanesa	808/20/D	Patinajea	Kirolaria
Ajuria Pison, Galder	812/20/D	Herri-Kirolak	Kirolaria
Carrera García, Rebeca	811/20/D	Beisbola eta softbola	Kirolaria
Larrarte Arteaga, Eukene	807/20/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Peña Arriola, Iñigo	802/20/D	Piraguismoa	Kirolaria
Ugarte Eriz, Aitor	809/20/D	Mendia	Kirolaria
Saies Sistiaga, Ekaitz	115/20/T	Piraguismoa	Teknikaria
Yarritu Carriazo, Aritz	116/20/T	Surfa	Teknikaria
Bacigalupe Martinez, Jon	27/20/J	Surfa	Epailea
Etayo Herrera, Gorka	23/20/J	Futbola	Epailea
Fernández Esesumaga, Iragartze	21/20/J	Futbola	Epailea
Gallastegui Perez, Arantza	18/20/J	Futbola	Epailea
Núñez Fernández, Jon	20/20/J	Futbola	Epailea
Otegui Echave, Manex	28/20/J	Surfa	Epailea
Rivera Olmedo, Olatz	22/20/J	Futbola	Epailea
Velasco Arbaiza, Aimar	24/20/J	Futbola	Epailea
Zalacain Fullaondo, Mikel	26/20/J	Surfa	Epailea
Zalacain Fullaondo, Gorka	25/20/J	Surfa	Epailea